



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/06/17

BILERA ZENBAKIA: 6

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Rut, Irupe, Kristina, Mari, Roxario, Aitor, Maddi, Rosi, Amaia, Saioa, Amaia, Ainara eta Joxe Luis.

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

##### 1. Saioaren egitura.

- Saioa Testuinguruan kokatu da. Bileraren egitura azaldu da.
- Gaiaren inguruko ideia zaparrada bat egin da, partehartzaileen ekarpenak jasotzeko.
- Aztertu behar zen gaiaren inguruko informazioa eman da.
- Lehentasunak finkatu eta hautaketa bat egin da.
- Emango diren hurrengo pausuak zeintzuk diren zehaztu dira.

##### 2. Taldean hausnartu dena.

Haurren herria lan taldeak erronka berria du eskuartean, ez nolanhikoa gainera. Hain zuzen ere, ikastetxeko hezkuntza proiektua osatu nahi du, herriko eragileekin, herritarrekin, nerabeekin, hurrekin...

Horretarako, Maiatzeko Herri bizitzan aipatu bezala, Irailetik aurrera 4 esparruen inguruan hausnarketak hasiko dira. Esparruak honako hauek dira:

- HEZKUNTZA FORMALA ( HAURRESKOLA, ESKOLA, ZAINTZA, JANGELA...)
- HEZKUNTZA EZ FORMALA ( Guraso txokoa, haurrak, nerabeak, udalekuak...)
- EUSKARA ( Uema.rekin egin diren lan saioetan jaso dira ekarpen asko. Oraindik ordea osatu daiteke.)
- INTEGRAZIOA

Hasi aurretik ordea, esparru hauek edukiz jantzi nahi dira eta bertaratuen



ekarpenak, iritziak jaso nahi izan ditugu eta adostu bakoitzean zein gai aztertu nahi den. Galdera hau egin dugu: Zeren inguruan uste duzue eztabaidatu behar dela gai bakoitzean?

Hona hemen jasotako erantzunak:

#### HEZKUNTZA FORMALA:

- Jangelaren kudeaketa modu ezberdinen azterketa
- Elikadura jasangarria
- Zaintza zerbitzuaren azterketa
- Atton Amonak eskolan. Transmisioaren garrantzia.
- Ofizioak lantzea (jostea, egurra, sukaldaritza...)
- Haur eskola eta eskolaren funtzioa herrian, zerbitzua izateaz gain. Herriaren biziraupenerako duen garrantzia adibidiez.

#### HEZKUNTZA EZ FORMALA:

- Haurren partehartzea baloratu.
- Haur, gazte, heldu trantsizioa, herriak eskaintzen dituen zerbitzuetan. Adin tartean.
- Extraeskolarrak BAI EDO EZ?
- Jolas libreak eta inprobisatuak? Aisialdi programatuegia? Zerbitzu kutsua.
- Hazkuntza taldea (0-2 urteko gurasoen esperientzia trukaketa)

#### EUSKARA

- Kale erabilera neurtu
- Zer eredu ematen ari gara?
- Gaztelerak duen pisua
- Euskararen kalitatea. Ez da nahikoa euskaraz jakitea

#### INTEGRAZIOA

- Berdintasuna eskolana nola?
- Etorkinak eta bizia herrian egiten ez duten familiak
- Zer da guztiontzako eskola bat?
- Garapen akademikoaz gain, SOZIALA ere

Behin, ideien zaparrada egin eta gero informazioa luzatu da. Hain zuzen ere, 4 esparruen inguruko informazioa. Honek helburua, bertaratu direnak, herrian



dugun guztia ezagutzea zen 4 esparruen baitan

### 3. Bileren metodologia zein izango den landu da.

**EUSKARA:** Uemak egin zituen bi saioetan INDARGUNEAN eta AHULGUNEAK aztertu zituzten herritar talde batek eta KONPONBIDE posible batzuk zerrendatu ere bai. Zorionez, bilera horietatik talde motor bat atera da eta hau izango da arduradun apur bat gaiak lantzeko. Gaur eginiko ekarpenak ere luzatuko zaizkio talde honi kontutan hartu ditzan.

**INTEGRAZIOA:** Hasiera batean Ongizate taldeari egin zaio gonbidapena bere hileroko bilera batean lan talde honetan erabakitzen ziren gai eta edukiak lantzeko. Beraiek prest daude lanketa egiteko. Orain, gaiak eta edukiak eskuan ditugula aztertu beharko dugu nola landuko diren.

**HEZKUNTZA FORMALA / HEZKUNTZA EZ FORMALA:** Hasiera batean, ikusten zen, Haurren herria lan taldea eta herriko eragile desberdinak bilera batean edo bitan landu ahal izango zuela gaia. Haur eta nerabeekin ere landu nahi den zerbait da. Orain, gaiak eta edukiak eskuan ditugula aztertu beharko dugu nola landuko diren ( metodologia, denboralizazioa, norekin...)

Guzti honek, konpromisua eskatzen du, gure inguruekoei ahalik eta gehien zabaltzea, herrian zabaltzea. Esfortzu bat eskatzen da, hausnarketak irauten duten bitartean ( iraila-abendua) ahalik eta jende gehiengana iritsi ahal izateko. Gutako bakoitzak gure ingurunean egin dezake.

### 4. Zer landu nahi da esparru bakoitzean? Lehentasunak finkatzen.

Amaitzeko, ideia zaparrada horretatik, gure ustez, ezinbestekoak diren gaiak/edukiak aukeratu dira aho batez. Hona hemen aukeratuak (blokeetan bezala jarri ditut, elkarrekin zuten antzekotasun edo loturagatik)

#### **HEZKUNTZA FORMALA:**

- Jangelaren kudeaketa, modu ezberdinen azterketa
- Elikadura jasangarria
- Zaintza zerbitzuaren azterketa
- Aiton-Amonak eskolan. Transmisioaren garrantzia.
- Ofizioak lantzea (jostea, egurra, sukaldaritza...)
- Haur eskola eta eskolaren funtzioa herrian, zerbitzua izateaz gain.



Herriaren biziraupenerako duen garrantzia adibidez.

**HEZKUNTZA EZ FORMALA:**

- Haurren partehartzea baloratu
- Haur, gazte, heldu trantsizioa, herriak eskaintzen dituen zerbitzuetan. Adin tarteak.
- Extraeskolarrak BAI edo EZ?
- Jolas libreak eta inprobisatuak? Aisialdi programatuegia? Zerbitzu kutsua

**EUSKARA:**

- Euskarako talde motorra. Ekarpinak jasota daude, dokumentuak. Gaur jasotako ekarpinak jakinaraziko dira.

**INTEGRAIZOA:**

- Etorkinak eta bizia herrian egiten ez duten familiak.
- Zer da guztiontzako eskola bat?

**5. Hurrengo pausuak aztertzen.**

**ARDURADUNAK:** Aitor eta Ainarak gaur jasotakoa aztertu eta baloratuko dute eta hausnarketa prozesua egituratuko dute. Lan taldean aurkeztuko da eta guztien artean adostu.

20:20etan bilera amaitutzat eman dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

**HURRENGO BILERA**

**Hurrengo bilera, Uztailean egingo dugu.**

Gai ordena:

1. Kultur ekintzei buruzko informazioa.
2. Gaztelekua. (Ainarak zalatzen jarri du gazteekin edukirik osatzeko gai izango diren)